

Ebazpena: R049/2023

Espedientea: 26/2016 eta 28/2016 metatua

Vitoria-Gasteizen, 2023ko maiatzaren 8an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordea honakoek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidentea, eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek. Eta honakoa erabaki dute:

ERABAKIA

Zerga Administrazioeko Estatu Agentziak (aurrerantzean, ZAEA) eta Bizkaiko Foru Aldundiak (aurrerantzean, BFA), hurrenez hurren, biek ala biek beste Administrazioaren aurka planteatutako gatazkei buruzkoa, zeinen helburua baita zehaztea IIESA zergapekoari 2012ko ekitaldiko BEZa eta Sozietateen gaineko Zerga (aurrerantzean, SZ) ordainarazteko eskumena. Gatazka horiek Arbitraje Batzorde honetan ari dira izapidetzen, 26/2016 eta 28/2016 espedientezenbakiakin.

I. AURREKARIAK

1.- Egoitza fiskala Bizkaian duen entitatea da IIESA, eta ingeniari-talenteak eta higiezin-proiektuekin zerikusia duten beste zerbitzu tekniko batzuk ematen ditu.

BFAk 2017ko maiatzaren 18ko bere aktetan arrazoitzen du zergapekoak ez duela ondasun-ematerik egiten, zerbitzu-prestazioak baizik, denboran luzaro iraun dezaketenak (higiezinaren eraikuntza-proiektuekin lotuta daudelako), baina

ezin direnak segidako traktukotzat jo, eta zerbitzua eman ahala sorrarazten direnak, hau da, eraikuntza-proiektua burutzearekin batera, BEZLaren 75.2 artikuluan aurrerakinentzako ezarritakoa izan ezik.

Entitateak 7.000.000 eurotik beherako eragiketa-bolumena aitortu zuen 2010ean, eta, beraz, 2011n BEZa eta SZa BFari ordaindu zizkion eskusiboki.

2011n, 5.466.541 euroko eragiketa-bolumena aitortu zuen SZn, eta 7.171.936,26 eurokoa BEZean.

Ezein Administrazioek ez du ezbaian jarri 2010eko eragiketa-bolumena, eta, beraz, ez da zalantzan jartzen 2011ko ikuskapen-eskumena, BEZarena eta SZrena ez ezik, eragiketa-bolumenaren zifrarena ere, BFari dagokiola.

2.- 2012ko otsailaren 17an, entitateak BEZarekiko eta SZrekiko betebeharrei buruz alta emateko 036 eredua aurkeztu zuen ZAEAn.

3.- 26/2012 gatazka, 2012ko SZrekiko ordainarazpen-eskumenari buruzkoa

3.1.- 2014ko martxoaren 6an, ZAEAk errekerimendu bat jakinarazi zion zergapekoari, 2012ko SZri buruzko autolikidazioa ez aurkezteagatik.

3.2.- 2014ko martxoaren 26an, IIESAk autolikidazioa aurkeztu zuen, eta Estatuari aitortu zion eragiketa-bolumenean zegokion proportzioa % 96,55 zela, eta 243.057,59 euro sartu behar zituela; baina ez zuen aldatu 2011ko eragiketa-bolumena.

Autolikidazioarekin 16.550,21 euro sartu ziren, eta ZAEAREN aldeko zenbatekoa itzultzeko eskatu zitzaion BFari.

Zergapekoaren autolikidazioaren arabera, ZAEAk, zerga-kudeaketako prozedura baten bidez, behin-behineko likidazio-proposamena egin zuen, eta 218.121,70 euro ordaindu behar zituen.

3.3.- 2014ko martxoaren 26an bertan, IIESAk 2012ko SZren ordezkotako aitorpen bat aurkeztu zuen BFAn, eta Estatuaren alde 218.121,70 euro bidaltzea eskatu zuen. Sozietateak orduan ere ez zuen aldatu aitortutako eragiketa-bolumenaren zifra, 2011ko SZaren aldean.

3.4.- Estatuaren likidazio-proposamenaren osteko alegazio-izapidean, IIESAk idazki bat aurkeztu zuen 2014ko ekainaren 4an, honako hau adieraziz:

a.- BFAn soilik aurkeztu zuen 2011ko BEZaren aitorpenean 7.171.936,26 euroko eragiketa-bolumena aitortu zuen, eta SZren aitorpenean, berriz, 5.466.541 euroko eragiketa-bolumena.

b.- 2014ko apirilaren 2ko idazki baten bidez, BFAk 2011ko BEZaren eta SZren eragiketa-bolumenari buruzko desadostasuna argitzeko eskatu zion.

c.- 2011ko BEZean aitortutako eragiketa-bolumena okerra da, fakturaren jaulkipen-dataren arabera kalkulatu zelako eta ez sortzapen-dataren arabera, eta aurrerakinen sortzapena ez da kontuan hartu; zenbateko zuzena 6.391.527,44 eurokoa da.

3.5.- ZAEAk 2014ko uztailaren 30ean amaitu zuen tributu-kudeaketako prozedura, eta behin-behineko likidazioa eman zuen, zergapekoaren alegazioak ezetsiz, eragiketa-bolumenaren zenbaketatik kanpo geratzen ziren 2011ko fakturak identifikatu gabe zeudela iritzita.

3.6.- 2014ko abuztuaren 21ean, ZAEAk bidalketa-eskaera igorri zion BFari, eta 2016ko urtarrilaren 7an errepikatu zuen.

3.7.- 2016ko urtarrilaren 28an, BFAk ezetsi egin zuen bidalketa, argudiatuz zergapekoak ez zuela aintzat hartu bere errekerimendua, hots, SZren eta BEZaren ondorioetarako aitortutako eragiketa-bolumenaren arteko desadostasuna argitzeari buruzkoa. 26/2016 gatazkari buruzko alegazio-idazkian, BFAk aitortzen du entitateak ez zuela inolako dokumentazio edo informazio gehigarririk aurkeztu bere aurrean, 2014ko martxoaren 26an 2012ko ekitaldiko sozietateen gaineko zergaren ordezeko aitortpena aurkeztu ondoren.

2016ko otsailaren 19an, ZAEAk bidalketa-eskaera berretsi zuen, BFaren argudioei kontra eginez.

3.8.- 2016ko martxoaren 10ean, BFAk bidalketari uko egiten ziola berretsi zuen, eta adierazi zuen zergapekoak 2011ko 390 ereduan zuzendu zuela bere eragiketa-bolumena 2011ko BEZaren ondorioetarako, eta 6.666.952 eurora murriztu zuela; SZ, aldiz, ez zuen zuzendu eta, beraz, 5.466.541 eurotan jarraitzen zuen.

3.9.- 2016ko martxoaren 23an, ZAEAk inhibizioa eskatu zion BFari, 2012ko SZ ordainarazteko eskumenari dagokionez, eta 218.121,70 euroren bidalketa eskatu zuen.

3.10.- 2016ko apirilaren 21ean, BFAk bere eskumena berretsi egin zuen, uste baitzuen BFA dela eskudun bakarra zergapekoaren eragiketa-bolumena egiaztatzeko, eta 2011n 7 milioi eurotik gorakoa ez zela zeritzon.

3.11.- 2016ko maiatzaren 20an, ZAEAk gatazka aurkeztu zuen Arbitraje Batzordean, eta 26/2016 espediente-zenbakia esleitu zitzaion hari.

3.12.- 2016ko ekainaren 22an, BFAk ikuskapen-prozedura bat hasi zuen 2011ko SZri dagokionez, eragiketa-bolumena egiaztatzen mugatuta.

Jarduketa horietarako, 2011ko BEZaren ondorioetarako bere eragiketa-bolumena zuzentzen eta 6.666.952,21 eurotan finkatzen zergapekoa behartu zuten kalkulu eta irizpideetatik abiatzen zen BFA.

2017ko maiatzaren 18an A01QPI602 adostasun-akta zertu zen, 2011ko eragiketa-bolumena 6.429.755,60 eurokoa izan zela adieraziz.

Horretarako, kontuan hartu zen zerbitzuak ematen diren ekitaldiari egotzi behar zaizkiola, eta ez faktura egiten den ekitaldiari, eta kontuan hartu behar dela aurrerakinen eragina.

3.13.- ZAEAREN behin-behineko likidazioari berraztertze errekurtsoa jarri zitzaion hasiera batean, eta, ondoren, auzibide ekonomiko-administratiboan, Euskal Autonomia Erkidegoko EAEAREN aurrean, prozedura etenda geratuz, Arbitraje Batzordeak zer ebatziko.

4.- 28/2016 gatazka, 2012ko BEZaren ordainarazpen-eskumenari buruzkoa

4.1.- 2012an, IIESAK hileko autolikidazioak aurkeztu zitzaizkion ZAEARI, eta % 96,55eko tributazio-proporzioa aitortu zion.

2013ko urtarrilaren 28an aurkeztu zuen urteko laburpena (390 eredu): 26.152.335,48 euroko eragiketa-bolumena aitortu zuen, eta Estatuari zegokion tributua % 96,55koa zen halaber.

4.2.- 2014ko abuztuaren 20an, ZAEAk datuak egiaztatzeko prozedura abiarazi zuen, eta zergapetzearen proportzioa zehazteko erabilitako kalkuluak eskatu zizkion zergapekoari.

4.3.- 2014ko irailaren 2ko idazki bidez, enpresak erantzun zuen kalkulua lurralde erkidean ziharduen plantillaren (28 pertsona), eta foru-lurraldean ari zenaren (pertsona 1) arabera zehazten zuela zenbatespena.

4.4.- 2014ko irailaren 9an, ZAEAk zergapekoari erantzun zion jakinaraziz kalkulu-sistema okerra zerabilela, lurralde batean eta bestean egindako eragiketen arabera egin behar baitzen zenbatespena.

4.5.- 2014ko irailaren 19an, zergapekoak idazki bat aurkeztu zion BFari akatsak zuzentzeko, 2011ko BEZaren hileko aitortenei eta urteko laburpenari buruz, eragiketa-bolumena gaizki kalkulatu zuela eta hura benetan 6.666.952,21 eurokoa izan zela zeritzolako.

4.6.- 2014ko urriaren 20an, zergapekoak deklaratu zuen 2012ko tributazio-proportzioa % 99,65ekoa zuela, eta 2013koa, berriz, % 99,33koa.

4.7.- 2014ko urriaren 21ean, IIESAk idazki bat aurkeztu zuen, aurreko egunekoa indarririk gabe uzteko eskatuz, 2011ko eragiketa-bolumena 7.000.000 eurotik beherakoa izan zela argudiatuz, eta, beraz, 2012. urtea BFari zegokiola eskusiboki. Beraz, erregularizazioa 2013. urtera mugatzen zuen.

4.8.- ZAEAk 2011ko BEZ aitortpena eskatu zion zergapekoari, eta azaroaren 6an aurkeztu zuen hark, BFari 2014ko irailaren 19an aurkeztutako akatsen zuzenketarekin batera.

4.9.- 2014ko abenduaren 13an, zergapekoak idazki bat aurkeztu zuen BFAn, 2012ko BEZaren autolikidazioak zuzentzeko; izan ere, 2011n 7.000.000 euroko eragiketa-bolumena gainditu ez zuenez, zergak Foru Ogasunari bakarrik ordaindu behar zizkiola zeritzon.

4.10.- 2015eko apirilaren 9an, zergapekoak zentsu-aitorpena aurkeztu zuen ZAEAn (036 eredua), eta BEZaren betebeharretan baja emanez, 2014ko abenduaren 31tik aurrerako ondoreekin, eta enpresa handi gisa ere baja emanez.

4.11.- 2015eko ekainaren 22an, ZAEAk datuak egiaztatzeko prozedura hasi zuen, eta prozedura horretan, 2012ko 12. hileko eta 2013ko hilabete guztietako behin-behineko likidazio-proposamena jakinarazi zen, zergapekoak 2014ko urriaren 20an aitortutako datuen arabera.

Zergapekoak alegazioak aurkeztu zituen, 2012ko zerga-ordainketa eskusiboki BFari zegokiola adieraziz.

2015eko abenduaren 14an, ZAEAk behin-behineko likidazioa jakinarazi zuen, enpresaren alegazioak ezetsiz.

Behin-behineko likidazioaren aurka berraztertze errekurtsoa aurkeztu zen, eta, ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko EAEAn; azken honek, 2017ko ekainaren 28ko Ebazpenaren bidez, deuseztatu egin zuen likidazioa, esanez:

Gatazkak Sozietateen gaineko Zergarekin zerikusia badu ere, 2011ko ekitaldiko eragiketa-bolumenaren ingurukoa da, eta ebazpenak zuzenean eragingo dio 2012ko BEZari. Arbitraje Batzordeak zehazteke duenez zein zen zerga ordainarazteko administrazio eskuduna 2012an (SZ, baina baita BEZa ere), eta, beraz, nori zegokion 2011ko ekitaldiko eragiketa-

bolumena kalkulatzeari, ZAEAk ez zukeen 2012ko ekitaldiko 12. aldiari buruzko behin-behineko likidazioa berretsi behar, transkribatu den arauan xedatutakoa betez.

Azaldutakoaren arabera, auzitegi honek bidezkoztat jotzen du 2012ko ekitaldiko 12. aldiko behin-behineko likidazioa berresten duen zatian aurkaratutako erabakia baliogabetzea, bai eta aipatutako likidazioa bera ere, eztabaidatutako gaia (zein izan zen entitateak 2011ko ekitaldian egindako eragiketa-bolumena eta zein den hura zehazteko eskumena duen Zerga Administrazioa) Arbitraje Batzordean ebazteko dagoelako.

4.12.- 2015eko ekainaren 26an, BFAk behin-behineko likidazioa jakinarazi zuen, eta ontzat eman zuen zergapekoak aitortutako 2011ko eragiketa-bolumenaren murrizketa.

4.13.- Bestalde, 2015eko irailaren 29an IIESAk idazki bat aurkeztu zuen 2012ko BEZaren hileroko aldiengatik aurkeztutako autolikidazioak aldatu ahal izatea eskatuz, eta Estatuak ezetsi egin zuen eskabidea.

Erabaki horren aurka, berraztertze errekurtsoa jarri zen, eta ondoren erreklamazio ekonomiko administratiboa ere bai, eta 2017ko ekainaren 28ko Ebazpenaren bidez ontzat eman zen erreklamazioa, honako hau adieraziz:

Gatazkak Sozietateen gaineko Zergarekin zerikusia badu ere, 2011ko ekitaldiko eragiketa-bolumenaren ingurukoa da, eta ebazpenak zuzenean eragingo dio 2012ko BEZari. Arbitraje Batzordeak zehazteko duenez zein zen zerga ordainarazteko administrazio eskuduna 2012an (SZ, baina baita BEZa ere), eta, beraz, nori zegokion 2011ko ekitaldiko eragiketa-

bolumena kalkulatzea, ZAEAk ez zukeen jarraitu behar interesdunak hasitako prozedura, BEZaren autolikidazioak zuzentzeko eskatzean, transkribatu den arauan xedatutakoa betez.

Azaldutakoaren arabera, Auzitegi honek bidezkotzat jotzen du aurkaratutako erabakia baliogabetzea, Ekonomia Itunean ezarritako abstentzio-betebeharra ez betetzeagatik, harik eta eztabaidatutako gaia (zein izan zen erakundeak 2011ko ekitaldian egindako eragiketa-bolumena eta zein den hori zehazteko eskumena duen Zerga Administrazioa) Arbitraje Batzordeak ebazten duen arte.

4.14.- 2016ko maiatzaren 6an, BFAk inhibizioa eskatu zion Estatuari, zergapekoari kudeaketa- eta ikuskapen-prozeduren bitartez egiaztapenak egiteko eskumenari zegokionez.

4.15.- 2016ko ekainaren 6an, ZAEAk bere eskumena berretsi zuen.

4.16.- 2016ko ekainaren 22an, BFAk abian jarri zuen zergapekoaren 2011ko BEZa ikuskatzeko prozedura, irismen mugatukoa, haren eragiketa-bolumena zehazteko.

Egiaztapen horretan, zergapekoak 2011n 6.666.952,21 euroko eragiketa-bolumena izan zuela zehazteko erabilitako kalkulu eta irizpideetatik abiatzen da BFA.

2017ko maiatzaren 18an A01QPI602 adostasun-akta zertu zen, 2011ko eragiketa-bolumena 6.429.755,60 eurokoa izan zela adieraziz.

Horretarako, zerbitzuak ematen diren ekitaldiari egotzi behar zaizkiola deritzo, eta ez faktura egiten den ekitaldiari, eta aurrerakinak kontuan hartu behar direla.

4.17.- BFAk 2016ko ekainaren 30ean aurkeztu zuen gatazka Arbitraje Batzordean, eta 28/2016 espediente-zenbakia esleitu zitzaion.

5.- Gatazkek metatu egin ziren Arbitraje Batzordearen 2021eko azaroaren 26ko erabaki bidez, eta prozedura arruntaren bidez izapidetu dira.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena. Euskal Autonomia Erkidegoko EAEArekiko harremana

Arbitraje Batzordeak eskumena dauka gatazka hau ebazteko, Ekonomia Itunaren 66.Bat artikuluan xedatutakoaren arabera; artikulua horrek eginkizun hauek ezartzen baitizkio batzorde horri:

a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkek ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkek erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea.

Arbitraje Batzordearen eskumena eskusiboa eta baztertzaila da Euskal Autonomia Erkidegoko Eskualdeko Auzitegi Ekonomiko Administratiboarekiko, zeinak, arretatsu, likidazioak deuseztatu egin baititu prozedura honen barruan ematen den Ebazpenak zer dioen jakin arte.

2.- Prozedurak metatzea

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 57. artikulua aplikatzekoa da 1760/2007 Errege Dekretuaren bidez onartu zen Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Araudiaren 8. artikulua indarrez, eta hauxe dio:

Prozedura hasten edo izapidetzen duen administrazio-organoak, prozedura hasteko modua edozein dela ere, erabaki dezake, ofizioz edo alderdi batek eskaturik, prozedura hori metatzea oinarri bera edo lotura estua duten beste batzuekin, organo berak izapidetu eta ebatzi behar badu prozedura.

Metatzeko erabakiaren aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu.

3.- Arbitraje Batzordearen jarrera

Gatazka honen oinarrian bi auzi desberdin daude:

a.- ZAEAk egindako egiaztapen-prozeduren legezkotasuna.

b.- 2012ko BEZa eta SZ ordainarazteko eskumena.

3.1.- Zergapekoak SZren ondorioetarako 5.466.541 euroko eragiketa-bolumena du aitortua, eta 7.171.936,26 eurokoa BEZaren ondorioetarako, nahiz eta ondoren 6.666.952,21 eurora murriztu zuen.

Administrazio batek ere kontrakorik adierazi ez duenez, ulertu behar da ekitaldi ekonomikoa bat datorrela urte naturalarekin; beraz, ez lirateke egon behar hain desberdinak diren bi eragiketa-bolumen, BEZaren eta SZren ondorioetarako.

3.2.- Bi administrazioak, estatukoa eta forala, jakitun dira zergapekoak oker kalkulatu duela 2011ko eragiketa-bolumena, arrazoi hauengatik:

a.- Adierazi den bezala, BEZaren eta SZren zifrak oso desberdinak direlako.

b.- Zergapekoak aitortu duelako faktura jaulkitzen zenean aintzat hartzen zituela eragiketak, ez, ordea, zerbitzua ematen zenean, eta ez zituela aintzat hartzen aurrerakinekin lotutako sortzapenak.

Badakite, halaber, zergapekoak gaizki kalkulatzeko zuela eragiketa-bolumenaren proportzioa (foru-lurraldean eta lurralde erkidean ziharduten langileen arabera egin ere egiten baitzuen, eta ez lurralde batean eta bestean –leku bakoitzean zituen langileen bitartez– ematen zituen zerbitzuen arabera).

3.3.- Administrazioek ez dute ezbaian jarri 2010eko eragiketa-bolumena, ez BEZaren ondorioetarako, ez SZren ondorioetarako, 7.000.000 eurotik gorakoa beherakoa izan zela, beraz, ezbairik gabe, 2011ko eragiketen bolumena egiaztatzeko eskumena BFARI dagokio.

3.4.- 2011ko eragiketa-bolumenak erakartzen du zergapekoak BFari bakarrik ordaindu beharko lizkiokeela zergak (egoitzagatik) edo eragiketa-bolumenaren proportzioan.

7.000.000 eurotik gorakoa izanez gero, zerbitzuen prestazio ia guztiak lurralde erkidean egiten direla kontuan hartuta, 2012ko ikuskapen-eskumena ZAEari legokioke.

3.5.- Arbitraje Batzorde honek hainbat Ebazpenetan berresan du ikuskatzeko eskumena duen Administrazioak egiaztatu behar duela eragiketa-bolumena, zerga-ikuskaritzako prozedura baten bidez (kudeaketako prozedura bat bazterretsiz).

3.6.- BFAk ez du egiaztatu 2011ko eragiketa-bolumena ikuskapen-prozedura baten bidez.

Hain zuzen ere, 2017ko maiatzaren 18ko aktetan aitortzen da zergapekoak 2014an zuzendutako eragiketa-bolumenetik abiatu dela.

Eragiketa-bolumenaren zifra hori, 6.666.952,21 euro, zergapekoak aitortu zuen, beharrezkoa den ziurtagiririk aurkeztu gabe, horixe ondorioztatzen da eta 2014ko uztailaren 30eko ZAEaren behin-behineko likidaziotik eta BFaren 2016ko urtarrileko idazkitik, 2012ko SZren bidalketari uko egiten dionetik.

Hala eta guztiz ere, BFAk zifra hori berretsi egin zuen 2015eko ekainaren 26an zergapekoari jakinarazitako behin-behineko likidazioaren bidez.

Horrenbestez, ikuskapen-prozedura baten bidez ez da egiaztatu aktek aintzat hartzen duten zifra, 6.666.952,21 eurokoa.

3.7.- Zergapekoak 2014ko martxoaren 26an aurkeztutako 2012ko SZren autolikidazioa induzitutako aitortpena da, ZAEAk alde aurretik egindako errekerimenduaren ondoriozkoa baita.

Hala ere, Arbitraje Batzordearen 28/2023 Ebazpenean (1/2017 gatazkan emandakoan) adierazi zenean ez bezala, kasu honetan ZAEAk ez zuen bere eskumena gainezkatu, IIESAren betebeharra bere zentsu-aitortpenean betebeharren alta ematetik (036 eredukotik) zetorrelako.

Izan ere, Arbitraje Batzordeak 19/2022 Ebazpenean adierazi zuen bezala, ez luke zentzurik izango Ekonomia Itunaren 18.Bi eta 29.Lau artikuluetan xedatzen den betebeharrak –ordainarazteko eskumena duen administrazio adina autolikidazio aurkeztu behar dira–, administrazioek ez balute jarduteko aukerarik, zergapekoak bere eginbeharra betetzen ez badu.

Beraz, ez dirudi ZAEAk neurritz kanpo jokatu duenik zergapekoari zentsu-aitortpenaren arabera egin behar zuen autolikidazioa aurkezteko errekerimendu hutsagatik.

Ez du neurritz kanpo jokatu, ezta ere, ZAEAk, zergapekoak garaiz kanpo aurkeztutako autolikidazioaren baldintza berberetan behin-behineko likidazio-proposamen bat ematean.

3.8.- Arbitraje Batzordearen 19/2022 Ebazpenetik ondorioztatzen den bezala, ez du patu bera behin-behineko likidazioaren erabakiak, zergapekoak egindako alegazioen balorazio juridikoa jasotzen baitu.

ZAEAk, *asko egiteko dena gai, gutxi egiteko ere bai* printzipioari heltzen dio, eta, horrekin justifikatzen du, zergapekoaren adierazpenen arabera 2012ko SZren

ikuskapen-eskumena badagokio, egiaztapen eta erregularizazio osoa ere egin dezakeela, zerga-kudeaketako prozedura baten bidez.

Hori ez da horrela, zergapekoak 2011ko SZn aitortutako eragiketa-bolumena 7.000.000 eurotik beherakoa delako, eta, beraz, ZAEAk ezin duelako beretu SZren ikuskapen-eskumena zergapekoak BEZean aitortutako eragiketa-bolumenaren datua oinarritzat hartuta.

Gainera, eskumen hori izan balu ere, eragiketa-bolumenaren balioespena (zergapekoaren alegazioak ezetsiz) ikuskapen-prozedura baten bidez egin beharko zatekeen, azaldu den bezala, eta Arbitraje Batzorde honen hainbat ebazpenetan errepikatu duen moduan. Bestalde, ZAEAk badaki garaiz kanpoko autolikidazioan aitortutako tributazio-proporzioa okerra dela, eta, bide batez, ikuskapen-prozedura batean egiaztatu beharko zukeela hura ere.

Are nabarmenagoa da hori, ZAEAk jakin badakielako zergapekoaren zenbatekoa kalkulatzeko sistema eta eragiketa-bolumenaren proporzioa kalkulatzeko sistema nahitaez okerrak direla, azaldu den bezala.

Ildo berean ebatzi du Euskal Autonomia Erkidegoko EAEAk 2012ko eta 2013ko BEZari buruzko behin-behineko likidazioei dagokienez, eta behin-behineko likidazioak baliogabetu ditu 2011ko eragiketa-bolumena zehaztu arte.

3.9.- Hala ere, ez da zuzenbidearen araberakoa BFAk, BEZean eta SZeant deklaraturako zifra-desadostasuna argitzeko egindako errekerimenduari zergapekoak erantzun ez duela-eta, uko egitea Estatuak eskatutako bidalketari, ondo dakielako zergapekoak deklaraturako bolumen zifrak eta eragiketa-bolumenaren proporzioarenak ez direla zuzenak, eta, esan bezala, ez ditu egiaztatu ikuskapen-prozedura baten bidez. Izan ere, informazio hori lortzeko

tresnak baditu (errekerimenduei jaramonik ez egiteagatiko zehapenetatik hasita), eta 2011. urteko ikuskapen-eskumena dagokiolako.

Alegazio-idazkian, BFAk balioa eman nahi dio 2015eko ekainaren 26ko behin-behineko likidazioari, zeinean berretsi egiten baitzen zergapekoak proposatutako eragiketa-bolumenaren zifra BEZaren ondorioetarako (6.666.925,21 euro), Arbitraje Batzorde honek behin eta berriz esan arren ikuskatzeko eskumena duen administrazioak ikuskapen-prozedura baten bidez soilik egiaztatu behar duela eragiketa-bolumena, eta ez, beraz, kudeaketa-prozedura baten bidez.

3.10.- BEZari buruz erabili den gainerako prozedurari dagokionez, zergapekoak zergapetze-proporzioaren kalkulurako erabili dituen irizpideak jakinarazteko hasierako errekerimendua zentzuzkoa izan zitekeen ikuskapen-eskumena duen Administrazioari egiaztapena eskatzea ahalbidetuko lukeen txosten bat egiteko jardueren barruan.

3.11.- Gainerako prozesu-jarduketekin bestela jokatu behar da (EAEAk ebazpen-egintzak baliogabetu ditu), ZAEAk jakin badakielako zergapekoak darabilen kalkulatzeko irizpidea okerra dela (langileak lurralde erkidean eta foru-lurraldean duten kokapenaren arabera), une horretan Administrazio eskudunari egiaztapena eskatu behar baitzitzaien.

3.12.- Eztabaidagai diren espedienteetan dauden aurrekarietatik ez dira ondorioztatzen Arbitraje Batzorde honek 2011ko eragiketa-bolumena zehazteko behar diren datuak.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak

ERABAKITZEN DU

1.- Deklaratzea BFAk ikuskapen-prozedura baten bidez IIESAren 2011ko eragiketa-bolumen osorik egiaztatu behar duela eta, hala balitz, foru-lurraldean eta lurralde erkidean egindako eragiketa horien proportzioa zein den, 2012ko BEZa eta SZ ordainarazteko eta ikuskatzeko eskumena zehaztu ahal izateko.

2.- Deuseztatzea aurreko egiaztapen horren ondoriozko emaitzen eraginpean egon litezkeen ZAEAren eta BFAren egintzak, bereziki eta sakontzeko asmorik gabe, ZAEAren 2012ko SZren behin-behineko likidazioa, bidalketari uko egiteko BFAren erabakia, BFAren behin-behineko likidazioa zergapekoak aitortutako 6.666.952,21 euroko eragiketa-bolumenaren aldaketa berretsiz, eta BFAren 2017ko aktak.

3.- Erabaki hau jakinaraztea Zerga Administrazioiko Estatuko Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta IIESAri.